

# Gipuzkoako gizartearen zerbitzura

 Hurkoa

2015eko Memoria



[www.hurkoa.eus](http://www.hurkoa.eus)

#### Zerbitzu Orokorrak eta Arreta Tutelarra

Morlans kalea, 13 behea  
20009 Donostia  
Telefonoa 943468956  
Faxa 943466714  
idazkari@hurkoa.eus

#### Arreta Tutelarra

Gernikako Arbola Pasealekua, 16  
20006 Donostia  
Telefonoa 943 468 956  
Faxa 943 466 714  
idazkari@hurkoa.eus

Ferrerias kalea, 32 behea  
20500 Arrasate  
Telefonoa 943 468 956

Geltoki, 7  
20301 Irún  
Telefonoa 943 568 640

#### Centro de Día

(Ntra. Sra. de las Mercedes)  
Nafarroa Hiribidea, 31  
20013 Donostia  
Telefonoa 943 293 111  
Faxa 943 322 957  
cdmercedes@hurkoa.eus

#### Laguntzaileak



# 25 urte lanean, eta gure konpromisoa berritzearen alde



José Luis de la Cuesta eta Josu Ormazabal, Hurkoako eta Hurkoa Zainduzako presidentek.

Gure eguneroko lanean beren babesa ematen diguten adiskide eta kolaboratzaile guzti-guztiei gure jardueren berri emate aldera, gure komunikazio-arduraduna den Juan Carlos Maleten gidaritzapean egin den memoria honek Hurkoak 2015. urtean egindakoak berrikustea du helburu nagusi. Dakizuenetz, Hurkoa bi fundaziok osatzen dute 2014. urteaz geroztik: batetik, Hurkoa Fundazioak, tutoretza-jardueretan arduatua; eta, bestetik, Hurkoa Zainduz Fundazioak, egoitza-mailako arretan espezializatua (Donostiako Nafarroa Hiribidean dagoen “Nuestra Señora de las Mercedes” Eguneko Zentroaren bitartez, batik bat).

Iaz 25 urte bete ziren Caritasek gure elkarte hau sortu zuela, eta asko dira, beraz, 2015. urtean egindakoen artetik hemen aipatzeko modukoak iruditzen zaizkigun kontuak.

Gure 25. urteurren horren kariatara, hain zuzen, Hurkoak garrantzi handiko ekitaldi bat antolatu zuen joan den azaroaren 20an, Hernaniko Orona Ideo Fundazioaren egoitzan. Bertan izan ziren Urkullu lehendakaria eta Munilla gotzaina. Zaurgarritasuna hartu genuen ardatz, eta munta handiko hizlari ugari ekarri genituen, beren ekarpenekin gure ekitaldia aberastu zezaten. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Donostiako Udaleko agintari gorenak ere ondoan izan genituen, bai eta beste erakunde eta elkarte askotako ordezkariak ere, eta kolaboratzaile ugari ere bai, eta denen babesa gertu-gertutik sentitu genuen.

Urteurrena aprobetxatuz, eta desgaitasunen bat duten pertsonetikiko nahiz zaurgarritasun-egoeran daudenekiko beren konpromisoa nolabait saritze aldera, enblema espeziifiko bat sortu genuen 2015ean estreinatutako logotipoa oinarri hartuta: Urrezko H-a. Lehenbiziko bi sariak bi emakumek jaso zituzten: batetik, Aurora Elóseguik, Donostiako Lehen Instantziako Epaitegiko epaile-magistratuak; eta, bestetik, gure elkarte sortu aurretik ere lankide eta kolaboratzaile izan dugun Evelia Canterak, urte luzeotan Hurkoari oso nabarmen lagundu dionak, eta gaur egun Santanderko “Cocina Económica-n” lanean diharduenak.

Baina, goraxeago ere esan dugunez, 25. urteurreneko ekitaldi horiez gainera, beste ekimen ugari ere azpimarratu nahi ditugu hemen. 2015eko urtarrilean, Hurkoak egoitza bat inauguratu zuen Irunen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak utzitako lokal batean, eta inaugurazioa aprobetxatuz, tutoretza-jarduerari buruzko topaketa bat antolatu genuen; bertan izan zen, besteak beste, Juan Calparsoro Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia.

Aurreko horretaz gain, beste ekimen asko ere antolatu genituen iaz; esate baterako, María José Valderramak zuzendutako taldeak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Caritasen babespean, lan bat aurkeztu zuen

hauzkortasunari buruzko programaren proiektu teorikoaren barruan.

Gainera, 2015. urtean, adineko apaizei laguntzeko programaren barruan egin beharreko lanekin amaitu zuen Hurkoak. 2016. urtetik aurrera, Gotzaindegiak berak sortutako Juan María Vianney Fundazioa arduratuko da programa horretaz, eta gu geu ere partaide izango gaitu.

Bi akordio garrantzitsu ere sinatu genituen: alde batetik, Karitatearen Alabekin, Tolosako beren instalazioetan gune bat irekitzeko, Tolosaldean eta Goierrin tutoretzapean daudenei (eta beren senitartekoei) bertatik bertara laguntzeko aukera emango diguna; eta, bestetik, VISESArekin (Caritasen babespean), 2016ko lehen seihilekotik aurrera zerbitzu orokorreko gure bulegoa Morlans Pasealekura (Morlans Pasealekua, 13) eramateko ahala emango diguna.

Memoriak, gainera, boluntariotza-prozesuaren berregituraketaren berri ematen du, arlo horretan zuzendaritzatalde berria sortzekoak baikara, Hilario Seinen ardurapean. Bestalde, datu ekonomiko nabarmenenen berri ere ematen dugu memoria honetan. Duela bi urte bezala, iaz ere tutoretza-sailak defizita izan zuen, gastua kontrolatzeko eta dirua aurrezteko gure ahalegina handia izan arren. Gure zuzendari nagusia, José Ignacio del Pozo, eta Gipuzkoako Foru Aldundia auzia aztertzen ari dira, gure arteko hitzarmena hobeto egokitzeko tutoretza-jarduera errealetara. Hori dela eta, aitortza berezia egin nahi diegu bai Markel Olano ahaldun nagusiari eta bai Hurkoa sostengatzen duen hitzarmena zaintzearen ardura duen Maite Peña diputatuari.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, Donostiako eta Arrasateko udaletako Gizarte Ongizate zinegotzigoiei, bai eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, Kutxa Fundazioari eta "La Caixa" Fundazioari ere. Hurkoa sortu zuen Caritasi ere eskerrak eman nahi dizkiogu, bai eta Donostiako Elizbarrutiko Gotzaindegiari eta Karitatearen Alabei ere.

Hurkoa Fundazioko eta Hurkoa Zainduz Fundazioko kide guztiok izugarri harrotzen gaitu gure lantaldeetan tartean diren profesional eta boluntarioen lan eta konpromiso instituzionalak. Gurera hurbiltzen direnek oso sarri gorai patzen dute jende horren guztiaren lan zintzo eta eskuzabala, eta horrek eskeroneko izatera behartzen gaitu.

Mila esker, bihotzez!

# Hauzkortasuna, erronka berri bat

Azken hamarkadetan, nabarmen egin da aurrera desgaitasunen bat duten eta, beraz, menpekotasun-egoeran dauden pertsonen aldeko zaintza-lanetan. Hala eta guztiz ere, zaintza-lan horiek osasun-kontuetan ardaztuta daude batez ere: gaixotasun-egoeretan, alegia. Geriatriaren garapen itzelak adineko pertsonen premiei hobeto aurre egin ahal izatea eragin du, eta horrek gaixotasun-egoeretatik haratagoko zaintza-sistema bat sortzea ekarri du. Gaur egungo gure ereduak, dena den, osasunean errotuegi egoten jarraitzen du; alegia, ez dituela bestelako faktoreak aintzat hartzen, hala nola desgaitasunak, adineko pertsonen egoera kognitiboa eta baldintza psikosozialak. Alde horretatik, gure ahaleginak hauzkortasun-egoeretan ardazteak paradigma berri baten alde egitea dakar nahitaez, hala adineko pertsoneri eskaini beharreko zaintza-lanak paradigma berri horretan oinarritzeko.



Gizon-emakumeoi funtzionaltasuna galarazten digun eta ahuldade- eta menpekotasun-egoeran jartzen gaituen zahartze-prozesu naturala: horixe da, gaur egungo ikerketa-lanen arabera, hauzkortasun-sindromea. Gaixo egoteak, inoiz erori izanak, desgaitasunen bat izateak eta, oro har, baldintzapen sozial eta asistentzialek ahuldu egiten dituzte adineko pertsonak; horregatik, oinarri-oinarrizkoa da hauzkortasun-egoera horiek lehenbailehen diagnostikatzea, adineko pertsoneri ahalik eta laguntza eta zaintza handiena eman ahal izateko.

Hurkoak tutoretza-jardueretan duen esperientziak, desgaitasunen bat duten pertsoneri erabaki pertsonalak hartzen laguntzeko egin izan ditugun ordezkapen- eta babes-lan ugariak, prebentzioaren alorrean are gogorrago lan egiteko gogoia piztu zigun, eta alde horretatik, beraz, gure asmoa argia da: beren gaitasunak kaltetuak ez dituzten pertsonen autonomia eta erabakimena sustatzea. Horrenbestez, garbi dago beharrezkoa dela babesik gabeko pertsonak hauzkortasun-egoeran dauden ala ez ahalik lasterren diagnostikatzea, horrek emango baitigu aukera familiaren eta gizartearen laguntzarik ez dutenen eskubide eta interesak behar bezala babesteko.

Hala ere, askotan ez da batere erraza izaten pertsona bat bere burua gobernatzeko gai den ala ez zehaztea; halakoetan, nahitaezkoa izaten da, pertsona bakoitzaren egoera konkretua zein den jakiteko, prozesu berezi bati ekitea. Pertsona bakoitzak zer-nolako mugak eta desgaitasunak dituen ondo zehazteko, beraz (eta pertsona horren gaitasunik eza legez erabakitzeko prozesua hasia den ala ez alde batera utzita), pertsona horren zirkunstantziak zehatz-mehatz aztertu eta kasuan-kasuan zer babes-mota behar duen erabaki behar da.



## Hauzkortasunaren Arretarako Plan Integrala

2013. urtean, Hurkoako langileok ohartu ginen gurean egunero lantzen genituen kasuen artean ere bazirela hauzkortasun-egoeran zeuden pertsonak, eta, hala, egoera horiek identifikatzen hasi, eta garbi ikusi genuen denetariko kasuak zeudela: pertsona batzuk egoera ekonomiko larrian zeudela, beste batzuk axolagabekeriaz zaintzen zituztela, zenbait pertsona tratu txar fisiko nahiz psikologikoen biktimak zirela, eta, oro har, pertsona horiei ez zitzairela, printzipioz, inolako desgaitasunik diagnostikatu. Urtebete geroago, Hurkoa sakon hasi zen ikertzen ea zein izan ote litezkeen “hauzkortasun-egoeran dauden pertsonen premiei ahalik eta erantzunik egokiena emateko erronka berriak”. Ikerketa-

lan horren helburua argia zen, oso: Hauzkortasunaren Arretarako Plan Integral bat diseinatzen laguntzea, haren bitartez, batetik, argi eta garbi definitzeko gure esku-hartzeak zer helburu eta zer irizpide izan behar dituen oinarri, eta, bestetik, zehatz-mehatz aztertzeko ea zenbaterainoko baliabideak ditugun Euskadin. Plan Integral hori eskura izateak, izan ere, baliabideak errazago lortzea eta gure artean hobeto koordinatzea ekar lezake, eta tartean diren erakundeak eta gizarte osoa sentsibilizatzea ere bai, aldi berean.

Hori dela eta, Hurkoak zera proposatu du: lehenbizi, esku-hartzerako programa pilotu bat sortzea eta martxan jartzea, eta gero, gure ondorioak Hauzkortasunaren Arretarako Plan Integralari gehitzea. Proiektua (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Espainiako Caritasekin elkarlanean eginga) laster jarriko dugu martxan.

Hauzkortasun-egoerek adin guztietako pertsoneri eragin diezaiekete, bistan denez; baina, edonola ere, adineko pertsonak dira hauzkorrenak. Adina, beraz, garrantzi handiko faktorea da, baina ez faktore ezinbestekoak, hauzkortasunak kolektibo askori eragiten baitie: buruko gaixotasunak dituzten pertsoneri, menpekotasun-egoeran bizi direnei, baztertuak daudenei...

### Metodologia

Ikerketa-lana tokian tokiko zenbait talderen arteko dinamika batean oinarritu da, eta bakarrik bizi diren adineko pertsonekin lan egiten duten langile eta erakundeek hartu dute parte bertan.

Bost talde osatu dira: lehenbizi, zenbait boluntario-elkartetan (Nagusilan, Gurutze Gorria, Itxaropenaren Telefonoa, Gizalde, Zaintzaileak, Caritas) lan egiten duten langileek jardun dute; bigarren, hauzkortasun-egoeran dauden pertsonak; hirugarren, justiziaren alorreko eta finantza-munduko profesionalak; laugarren, Hurkoako langileak; eta bosgarren, alor sozio-sanitarioko profesionalak.

### Hauzkortasun-egoerak identifikatzeko aholkuak

- Hauzkortasun-egoerek okerrera egin baino lehen esku hartzea. Horretarako, hauzkortasun-egoera horiek lehenbailehen identifikatzeko, beharrezkoa da diagnostiko- eta aliantza-politika egoki bat lantzea.
- Koordinazio sozio-sanitariorako sistemak eraikitzea:
  - Hiru lurralde historikoetako baliabideak bateratzea.
  - Kasu bakoitzari gertu-gertuko jarraipena egitea, eta etxer etxeko bisitak bultzatzea.
  - Denbora batez ospitalean egon ondoren, etxeratzea behar bezala antolatzea.
  - Etxeko azpiegiturak aurreikustea eta hobetzea.
  - Arreta pertsonala sustatzea, bakardade-egoerei aurre egiteko.
- Tartean diren kolektibo profesionalak sentsibilizatzea
  - Tartean diren kolektibo profesionalak etengabeko prestakuntza eskaintzea.
  - Topaketa-guneak sortzea, nor bere esperientzien berri emateko.
  - Profesionalen arteko lana erraztea, elkarri informazioa emateko
  - Erabakiak hartzeko prozesuan lan egiten duten pertsoneri informazioa ematea prebentziorako ahaldunduek, botere mankomunatuak....
  - Adineko emakumeak ahaldunduek, erabaki legalak hartzen ikas dezaten.
  - Hauzkortasun-egoeran dauden pertsonentzako babes-protokoloak lantzea.
  - Tartean diren kolektibo profesionalak lan egitea: gizarte-zerbitzuekin, osasun-arretako ardura-dunekin, botikekin, aholkulari juridikoekin, udaltzaingoarekin, ertzaintzarekin, auzoetako dende-kin...
- Gizarte osoa sentsibilizatzea, eta gizarte-sare informalean garrantzia azpimarratzea. Tribu kontzeptua garrantzi handikoa da bai pertsonen heziketa- eta sozializazio-prozesuan, eta bai hauzkortasun-egoeran gaudenean elkar zaintzeko.
- Hauzkortasun-egoeran dauden pertsonen duintasuna eta borondatea errespetatzea, horixe baita gure helburua: pertsona horien ongizatea bermatzea, autonomia pertsonala sustatzea, beren premiei erantzutea, eta arrisku-, babesgabetasun- eta bazterketa-egoera oro aurreikustea.

## “Zoritxarrez, pertsona asko daude sozialki ikusezinak direnak”

**Maria José Valderrama,**  
psikologoa.

Hauzkortasunari buruzko ikerketa-lana egin duen Hurkoako lantalderen zuzendaria da. Hauek dira lantalde horretako beste kideak: Maria Luisa Otaño (Hurkoako patronatuko presidente-ordea), José Luis Marañón (Hurkoako patronatuko kidea) eta María Casla Eguía (Hurkoako gizarte-langilea).



Maria José Valderrama (eskuinetik hasita lehen), hauzkortasunari buruzko ikerketa-lana egin duen Hurkoako lantaldearekin.

### **Zein da hauzkortasun-egoeran dauden pertsonen profila?**

Bakarrrik bizi direnak izan ohi dira pertsonarik hauzkorrenak; alegia, senitartekorik, lagunik edo gizarte-sarerek gabe daudenak, edo beren burua bakartu dutenak. Hortik aurrera, egoera horretan dauden pertsonen ezaugarriak askotarikoak dira.

### **Ba al da alderik gizon eta emakumeen artean?**

Bizi-itxaropena bera da aurreneko alde; zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta handiagoa da premian egon eta laguntzarik eskatzen ez duten emakumeen kopurua, eta, beraz, emakume horiek arrisku-egoeran egoten dira. Beste alde bat ekonomiarekin dago lotuta: adineko emakume asko etxean lan egindakoak dira, eta gehienek ez dute erretiro-pentsiorik jasotzen; ezkontuta daudenek, senarra hiltzean, alarguntasun-pentsioa jasotzen dute, baina beren erosteko ahalmena nabarmen jaisten da. Eta badira, azkenik, bizimoduarekin eta estereotipo sozialekin lotutako aldeak ere... Oro har, esan liteke emakumeek diru- eta lege-kontuetarako behar izaten dutela laguntza gehien, eta gizonek, berriz, etxeko lanekin eta garbitasun pertsonalarekin lotutako kontuetarako.

### **Zer-nolako zailtasun edo mugak izan ohi dituzte pertsona horiek beren eguneroko bizitzan?**

Beren gaitasunak, bai fisikoak eta bai kognitiboak, murrizten ari zaizkiela ikusi, gabezia horiei aurre egiteko baliabideak josteko ahala bera ere galtzen ari direla ohartu, eta, hala ere, egoera horretara “ohitzea” da, ziur asko, pertsona horien arazo

handiena. Normalean, arrisku-egoeran daudenek ez dakite zer-nolako baliabideak dituzten eskura, ez dute ondoan beren egoerari aurre egiten lagunduko dien konfiantzazko inor. Horrek izugarri zailtzen du gizarte-zerbitzuen diagnostiko-lana, eta, beraz, pertsona horiek gizartearentzat “ikusezin” bihurtzen dira. Zoritxarrez, asko dira egoera horretan dauden pertsonak.

### **Zer-nolako kezkek dituzte hauzkortasun-egoeran dauden pertsona horiek?**

Argi ikusi dugu pertsona gehienek badakitela beren premien berri, baina ez direla gai beren egoera hobetzen lagunduko dieten baliabideak bilatzeko; nahi eta ezin halako batean bizi dira, beraz.

### **Zein dira Hurkoak sustatu duen programa pilotuaren ildo nagusiak?**

Hauzkortasun-egoeran dauden pertsonen arretarako plan integral bat lantzen ari gara, haren bitartez pertsona horien ongizatea bermatzeko, autonomia pertsonala sustatzeko, beren premiei erantzuteko, eta arrisku-, babesgabetasun- eta bazterketa-egoera oro aurreikusteko.

Horretarako, auzo bat aukeratuko dugu, bertan programa esperimenterik bat lehenbailehen aplikatzeko. Helburua argia da, oso: bertan bizi diren 75 urtetik gorako gizon-emakumeak ezagutzea, zer baliabide eta zerbitzu dituzten jakitea, eta auzo horretan esku-hartze programa bat abiaraztea, gero eredu gisa erabili ahal izan dezagun, hauzkortasun-egoeran dauden pertsonekin nola jokatu hobeto jakite aldera.

# Tutoretza-jarduera, sekula aski izaten ez den alorra

Beren gaitasun kognitiboak kaltetuak dituztelako, edo gaixo daudelako, edo arrisku-egoeran daudelako, zenbait pertsona babes premium daude, eta tutoretza da, hain zuzen, pertsona horiei funtzio sozial hori bermatzen dien baliabidea. Alor honetan sortzen ari diren premia berriei aurre egitearen aldeko lanean buru-belarri jarraitzen du Hurkoak.

Hurkoak 25 urtetik gora daramatza lanean, eta urte horietan guztietan, gogor aritu da, batetik, informazio- eta orientazio-bila zetozen familiekin aholkulari-lanak egiten, eta bestetik, tutoretzapean zeuden pertsonen ahalik eta babes- eta ongizate-maila handiena bermatzen.

2015ean, Hurkoako tutoretza-sailak 543 gizon-emakume artatu zituen; alegia, 2014an baino zertxobait gehiago. Tutoretza-prozesuekin lotutako informazio bila guregana etortzen diren familien kopuruari dagokionez, ordea, nabarmen egin da gora: iaz 200 familia baino gehiago etorri ziren gurera.

Bi dira Hurkoa tutoretza-prozesuak abian jartzera bultzatu ohi duten arrazoiak: familien babesik eza (234 kasu) eta gorabehera ekonomikoak (100 kasu). Dena den, badira beste arrazoi batzuk ere, hala nola autoutzikeria (91 kasu), familia barruko gatatzak (84 kasu) eta tratu txar ekonomikoak (50 kasu).

Kasu-motak	2015
Buruko gaixotasunak	299
Dementia / Gaixotasun kognitiboak	164
Substantzia toxikoen mendekotasuna	68
Desgaitasun intelektualak	44
Desgaitasun fisikoak	7
Istripu kardiobaskularrak	4
Patologia dualak	3
Beste batzuk	25

## Hobetzea helburu, beti

Adineko pertsonen edo buruko gaixotasunen bat duten gizon eta emakumeen babes ematearekin lotutako premiei ahalik eta erantzunik onena ematea, horixe izan da beti Hurkoan lan egiten dugunon helburu nagusia. Horretan sakontze aldera, eta azken urteotan gertatzen ari diren aldaketa sozialei eta pertsonen bizi-itxaropena hain nabarmen igo izanari nolabait erantzute aldera, Hurkoak ekimen-ildo berriak abiarazi ditu.

## Nolakoak dira tutoretza-kasuak?

Adineko pertsona bat, egoitza batean bakarrik bizi dena eta, beraz, oinarriko bere premiak aseak dituen, baina bere ondarea kudeatzeko edo beste mota bateko beharrak asetzeko baten baten premia duena: horixe da Hurkoak bere gain hartu ohi dituen tutoretza-kasu gehienen profila. Bestelako kasuak ere badira, noski; esate baterako, gure tutoretzapean dauden artean, badira egoitzetan bizi diren baina bakarrik ez dauden adineko pertsonak ere; haiek zaintzeko edo haien ondarea kudeatzeko moduari dagokionez, ordea, senitartekoak ez dira ados jartzen, eta guregana etortzen dira babes bila. Buruko gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan, Hurkoak bere gain hartzen dituen tutoretza-kasuak askotarikoak izan ohi dira. Familiei eskaintzen zaizkien zerbitzuei dagokionez, kontsulta gehienak narriadura

kognitiboa duten adineko pertsonekin daude lotuta; horrelakoetan, pertsona horiek ordezkaritza legal baten premium egoten dira, ez baitira gai egin beharrekoak beren kabuz egiteko. Zenbaitetan, gainera, familia ez da ados jartzen beren senitartekoaren zaintzari dagokionez, ez eta haren ondasunak kudeatzeko moduari dagokionez ere, eta, beraz, desadostasun horrek bultzatuta, erabakiak hartzeko ahalmen legala duen tutore bat izendatzen dute.

Azkenik, gure zaintzapean ditugun pertsonen artean bada beste tipologia bat ere: seme-alaben buruko gaixotasunen aurka luzaroan borrokan eman duten gurasoena, hain zuzen. Horrelakoetan, une jakin batean, guraso horiek konponbide bat aurkitu nahi izaten diote beren egoerari, eta tutoretzara jotzen dute, beren seme-alaben zailtasunak nolabait arintze aldera.



# “Datozen urteetan tutoretza-kasuen gorakada ikusteko prest egon behar dugu”

**Susana Montesino,**  
Hurkoako Arreta Tutelarreko  
zuzendaria.



## **Zer arrazoik bultzatzen dute Hurkoa pertsona baten tutore bihurtzera?**

Gure gain hartzen ditugun kasu gehienak familien babesik ezarekin daude lotuta: batzuetan, zaintza-premian dauden pertsonak senitartekorik ez dutelako, eta beste batzuetan, familia izan arren, senitartekoek ez daukatelako zaintza beren gain hartzerik, edo ez dutelako nahi. Zenbaitetan, gainera, senitartekoen artean gatazkak sortzen dira, eta horrek epaile batengana eramaten ditu, eta epaileak erakunde neutral eta espezializatu bati ematen dio tutoretza; guri, esate baterako. Beste kasu asko arrazoi ekonomikoekin daude lotuta: badira, batetik, beren burua zaintzen diru gehiegi gastatzen dutenak edo diru nahikorik gastatzen ez dutenak, eta bestetik, beren ondasunak kudeatzeko ardura dutenen zabarkeria dela-eta guregana etorri behar izaten dutenak.

## **Nola detektatzen dira kasu horiek?**

Normalean, ez ditugu guk detektatzen. Beste arlo batzuetako langileek identifikatu ohi dituzte kasuak, eta gero, laguntza eske etortzen zaizkigu. Gaur egun, tutoretza-kasu gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuetatik iristen zaizkigu, baina zenbaitetan, tartean izaten dira beste erakunde eta pertsona batzuk: udaletako gizarte-zerbitzuak, osasun-zentroak, zaharren egoitzak, parrokiak, auzokoak, lagunak...

## **Zer egiten du Hurkoak pertsona horien bizikaltatea hobetzeko?**

Ahalik eta erantzun pertsonalizatuena ematen saiatzen gara beti. Aurrenik eta behin, pertsonak beren borondatez egiten uzten digutena egiten dugu, eta haien tutore bihurtzen garenean, berriz, epailearen sententziak zer agintzen duen, horixe egiten dugu.

Horiek horrela, gure egitekoak bi helburu nagusi izan ohi ditu: batetik, gure zaintzapeko pertsona horrek etxebizitza duin bat izan dezan saiatzea; eta bestetik, bere elikadura-, higiene- eta osasun-premiak aseak izan ditzan saiatzea. Ondasunei dagokienez, pertsona horren baliabide ekonomikoak administratzen ditugu, hala bere premiei aurre egiteko; alegia, bere diru-sarrerak kudeatzen ditugu, eta diru hori kasuan-kasuan behar bezala gasta dezan saiatzen gara.

## **Zein izaten dira Hurkoara aholku bila joaten direnen kezka nagusiak?**

Tutoretza-prozedura judizialak nolakoak diren, horrek zer ekarriko dien, zer izapide egin behar dituzten, hori nola egin, zer erantzukizun dakartzan, zer betebeharrak eragiten dituen... Horrelakoxe kontuak jakin nahi izaten dituzte guregana aholku eske etortzen diren familiek. Gure familia-zerbitzua dementzia-arazoak dituzten adineko pertsonen buruzko aholkularitzara bideratuta dago, baina baita buruko gaixotasunen bat dutela-eta senitartekoren bat tutore duten pertsona gazteagoei buruzkora ere.

## **Hurkoak azken urteotan zaintzapean hartu dituen kasuen kopuruak egonkortzera egin du, baina ba al duzue etorkizunerako aurreikuspenik, gora egingo al dute tutoretza-kasuek?**

Nik baietz uste dut, gero eta jende gehiago bizi baita bakarrik (familiarik izan ez dutelako, edo familiek gero eta kide gutxiago dituztelako). Oro har, familia-eredua aldatu egin da, familien artean gero eta dispertsio geografiko handiagoa dago, sakabanatuta bizi dira: seme-alabak kanpora joaten dira lan bila, eta gurasoak zahartzean, ez daukate haiek zaintzerik. Buruko gaixotasunen bat duten pertsonen dagokienez ere, datozen urteetan gorakada handi samarra izan daiteke, eta horretarako prest egon beharko genuke.

## Urtebete Bidasoaldean

2015. urtean zehar, Hurkoa gogor aritu da lanean Bidasoaldean, bertako biztanleen premiei bertatik bertara erantzun nahian. Horretarako, bilera ugari egin ditugu eskualdeko zenbait gizarte-eragilerekin (Irun eta Hondarribiko gizarte-zerbitzuak, Irungo Herritarren Foroa, eskualdeko zaharren egoitzak, Caritas, Bidasoaldeko Ospitalea...), beren zerbitzuen berri jakiteko eta, hala, elkarlanerako bideak urratzeko.

Lehen ere Irunen lan dezente egina da Hurkoa, eta iazko egitasmo horiek guztiak harremanak estutzeko baliatu ditugu, bertan gurekin lanean ziharduen jendeari kudeaketa-lanak errazteko eta bizkortzeko.



**Txaro Rodrigo.** Mendekotasunaren Arretarako Zuzendaria.  
Gizarte Politikako Departamentua (GFA).

**Zer helburu dute mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxean bertan laguntzeko zuen programak?**

Ondo dakigu mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxean bizi nahi dutela. Eta Gizarte Politikako Departamentuak horren alde egin du apustu. Beraz, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean bizi ahal izatea da gure helburu nagusia, hau da, beren familia- eta gizarte-ingurunea utzi behar ez izatea; horretarako, pertsona horien bizi-kalitatea ahalik handiena izan dadin lortzeko, gure esku dauden baliabide guztiak eskaintzen ditugu: prestazio ekonomikoak eta gizarte-zerbitzu nahiz -programak, zehatz esatera. Tartean dira, besteak beste, eguneko zentroak, zentro horietan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera ugariak, Sendian programa eta laguntza teknikoa lortzeko programa. Horiek guztiek, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzenean laguntzeaz gain, etxea irisgarritasun-irizpideen arabera egokitzeko lanak egiteko aukera ematen dute, eta martxan daude, halaber, autonomia sustatzeko programak.

**Gizartea nabarmen zahartzen ari den sasoi honetan, zein dira zuen departamentuaren erronka nagusiak?**

Gizartea zahartzen ari da, bai: gero eta urte gehiago bizi gara, eta hobeto bizi nahi dugu. Sinetsita gaude gure erronka nagusia prebentzioa dela, hau da, zahartzen gainerako osasun onari eustea, hala mendekotasun-egoerak ahalik gehien atzeratzeko.

Baina mendekotasuna edo desgaitasuna errealitate gordina direnean, gure erronka nagusia pertsona horiei ahalik eta zaintza onenak ematea da, beren premiei aurre egiteko zerbitzu egokienak bermatuz. Eta horretan, ezin ditugu senitartekoak eta zaintzaileak ahaztu.

Biztanleria zahartzen ari dela jakinik, beraz, legegaldi honetan askoz zerbitzu gehiago jarriko ditugu abian, eguneko zentroetan ere jende gehiagok sartu ahal izango du, eskualde bakoitzean dituzten premia espezifikoak kontuan hartuta betiere.

**Tutoretza da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hurkoaren arteko lankidetzaren ardatza. Hori al da tutoretzapean egon beste biderik ez dutenen baliabide nagusia?**

Pertsonen autonomia areagotzeko baliabidez hartu behar da tutoretza. Pertsona batek bere bizitza eta bere ondarea gobernatzeko gaitasunak kaltetuak dituztenean eta, beraz, ordezkari baten premian dagoenean, orduantxe hartu ohi da muturreko neurri hori. Epailen batek soilik har dezake babes-neurri hori, eta legeak ezartzen dituen kasuetan baino ez, gainera.

Babes hori behar duen pertsonaren inguruko artean ez dagoenen inor haren zaintza bere gain har dezakeenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak tutoretzaren alorrean lan egiten duten elkarten laguntza bilatzen du; Hurkoarena, esate baterako. Gizarte Politikako Departamentuak eta Hurkoak luze daramate elkarlanean, eta aurrerantzean ere elkarrekin lanean jarraituko dugu, tutoretzapean dauden pertsonen zaintza hobetzea helburu hartuta.

# Eguneko Zentroa, bikaintasuna xede

Gipuzkoako adineko pertsonen zaintzan erreferente bihurtu da “Nuestra Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroa. Azken urteotan, metodo eta zerbitzu aurreratuenak jarri ditu martxan, zentrorra joaten direnen eta beren familiakoen bizi-kalitatea hobetzea helburu eta ardatz hartuta.

Pertsona bakoitza mundu bat da, eta kasu guztiak desberdinak. Premisa hori ederki ezagutzen dute “Nuestra Señora de las Mercedes” Eguneko Zentroko langile eta boluntarioek. Horregatik, arreta pertsonalizatua eskaintzea da beren kezka nagusia, eta horretan, erabiltzaile bakoitzaren premiei ahalik ondoen erantzuteko, alderdi fisiko, emozional, kognitibo eta sozialak hartzen dituzte kontuan.

Zentroan egiten den lanaren garrantzi itzelaz ohartzeko, aski dira bi datu hauek: astelehenetik ostiralera, zentroko zerbitzuen % 99,9 erabiltzen dira, eta asteburuetan, % 90. Funtsean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin egiten dute lan, baina badira autonomia gutxi-asko duten pertsonak ere.

## Aitorpena

Eguneko Zentroaren jarduerak ikuskatzeko egindako auditoretza ugariak, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero egin ohi dituen ikuskaritzek, eta erabiltzaile eta senitartekoei egin ohi zaizkien inkestek nabarmen utzi dute zenbaterainokoa den “Nuestra Señora de las Mercedes” Eguneko Zentroan aritzen diren Hurkoako langileen bikaintasunaren aldeko konpromisoa.

Familiekin adineko pertsonen zaintza partekatzea, beren ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzea, eta beren etxean ahalik eta denbora gehien bizi daitezen lortzea, horixe da Eguneko Zentroaren helburua.

Horretarako, familiekin eta erabiltzaileekin batera, Arreta Pertsonalizaturako Plana (APP) jarri dugu martxan, Eguneko Zentroko jarduerak pertsona bakoitzaren gaitasun eta gustuetara egokitzeko.



**84** Erabiltzaile

**%72** Emakumeak

**84** Batez besteko adina



**77** Erabiltzaile

**%82** Emakumeak

**85** Batez besteko adina



## “Bizitza eta etxeko adinekoen zaintza bateragarri egiten laguntzen diegu familiei”

### Nieves Saiz,

Eguneko Zentroko zuzendaria

Pedagogoa da, gerontologiako masterra egina du, eta ia hasieratik aritu da lanean “Ntra. Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroan. Bertatik bertara bizi izan du adineko pertsonen zaintzan azken urteotan izandako bilakaera.



### Zerk desberdintzen du Hurkoako Eguneko Zentroa?

Arrazoi askorengatik da desberdina gure eguneko zentroa: etxe independente bat da, zaharren egoitza bati atxikitzen ez zaiona; kalean bertan dago, Groseko gunere berezi samar batean; asteko egun guztietan zabaltzen ditugu gure ateak, eta ordutegia ere oso malgua da; hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu (fisioterapia, erizaintza, ile-apainketa, arropagarbiketa...). Baina gure langile eta boluntarioek bihurtzen gaituzte hain berezi: haien eskarmentuak, inplikazioak eta konpromisoak.

### Zer eskaintzen die zentroak adineko pertsonari eta beren senitartekoei?

Adineko pertsonak beren etxean egon daitezen nahi duten familiei segurtasuna ematen diegu, batik bat. Beren senitartekoa zaintzen laguntzen diegu, eta, beraz, beren bizi-proiektua eta adinekoen zaintza bateragarri egin dezaten ahalbidetzen. Pertsona horiek zentroan dauden denbora-tartean sor dakizkiekeen premia guztiei erantzuteko gaitasuna dugu, eta horrela, haren senitartekoak beren lanaz harro egon daitezen lortzen dugu, “hau ere egingo dut” esan dezaten. Izan ere, oso lan zaila da; norberari gertatu arte, benetan zer lan-mota den ondo ez dakiguna.

### Nolakoa da zuen zentroan ematen duzuen arreta pertsonalizatua?

Hasiera-hasieratik egoten gara harremanetan familiekin, zentrorra datorren pertsonaren zaintzarekin lotutako erabakietan parte har dezaten saiatzen gara, baina erabiltzaileekin ere oso gertutik egiten dugu lan, baldin eta horretarako gaitasuna badu. Erabiltzaileen partaidetza bilatzen dugu.

Pertsona bakoitzaren neurrira egindako arreta-plana diseinatzen dugu, eta horretan, bere ezaugarri eta interesak hartzen ditugu kontuan, zentroan egon behar duen denbora-tartea ahalik eta atseginena gerta dakion. Bertan egiten diren jarduerak ahalik eta egokienak izan daitezzen ere saiatzen gara. Jarrera-kontua da, gurekin dauden pertsonak aintzat hartu behar izatearekin lotua.

### Zentroak 30 urte bete ditu. Azken urteotan gauza asko aldatuko ziren, ziur asko. Zer ekarriko ote du geroak?

Nire ustez, adinekoak beren etxean bizi daitezen lortzea da erronka nagusia. Horretarako, adineko pertsonen ongizatea hobetzeko, nahitaezkoa da, batetik, mota guztietako laguntzak eta baliabideak aktibatzea, eta bestetik, gero eta ikuspuntu gizatiarragoa hartzea. Oinarri-oinarrizkoa da, halaber, zaintzaile-lanetan aritzen diren familiei babesa ematen jarraitzea, bakarrik senti ez daitezen.

#### Zerbitzu nagusiak

Fisioterapia

Erizaintza

Garraioa

Podologia

Ile-apainketa

Psikomotrizitatea

Estimulazio kognitiboa

Eskulanterapia

Animazio soziokulturala

Musikoterapia

Erljio-zerbitzuak

## Gizartea helburu duen zentroa



**“Nuestra Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroak harreman estu-estua du gizartearekin. Inguruan dagoen San Inazio ikastetxeko ikasle-talde bat, adibidez, astero hurbiltzen dira zenbait jardueratan parte hartzera.**

Donostiako Jesuiten ikastetxeko Batxilergoko 2. mailako ikasleen koordinatzaileetako bat dugu Juan de Prado. Haren ustez, zentroan “oso lan polita egiten da adineko pertsonekin. Ostiral arratsaldero joaten gara, elkarrekin askaltzen dugu, jarduera batean edo bestetan parte hartzen dugu, eta alde egin arte bertan egoten gara”.

Zentrorra joaten diren gazteek aitortzen dutenez, adinekoen irribarreak, maitasun-adierazpenek, beren umore onak eta ondo pasatzeko gogoak, horrek guztiak “hunkitu egiten gaitu”.

Gazte-talde horren konpromisoak oinarri sendoa du: “Horiek dira gure balioak, etxean eta eskolan egunero irakasten dizkigutenak. Gure inguruan gauzek hobera egin dezaten saiatzen gara.

Pertsonalki horretan ari garela eta hobekuntza horren erantzuleak geu garela sentitu nahi dugu”.

Gure inguruan errealitate ugari daudela aintzat hartzeko balio izan die esperientziak gazte horietako askori: “Gazte askoren inguruan egon litekeen ongizate-burbuila hausten laguntzea gustatzen zaigu”.

Eta zentroari berari dagokionez, zera diote: “Langileen, boluntarioen eta erabiltzaileen giza kalitatea itzela da, guztiz bikainak dira”.



**Noemí Hernández,**  
“Ntra. Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroko gizarte-langilea

### **Zer lan egiten dituzu zentroan?**

Neuk egiten diet harrera gurera datozen familiei. Lehenbiziko harremanak egiteaz arduratzen naiz, jarduerari buruzko informazioa ematen diet, eta, batez ere, gure zentrorra etorriko den pertsonaren ezaugarri eta zirkunstantzietan buruzko ahalik eta informazio gehiena biltzen saiatzen naiz.

### **Erraz bateratzen al dituzue familien espektatibak eta zentroak eskain ditzakeen zerbitzuak?**

Funtsezkoa da familiei gure lana zertan datzan ondo esplikatzea, zer egiten dugun eta gugandik zer espero dezaketzen zehatz-mehatz azaltzea, haien espektatibak gure gaitasun errealekara egokitzeak. Zenbait egoeratan, familiek uste izaten dute gure artean egongo den pertsonak hobera egingo duela, eta hori oso zaila izaten da...

### **Zerk asebetetzen zaitu gehien zure lanean?**

Nire lanak beste pertsona batzuei beren bizi-kalitatea hobetzen lagundu diela jakitea da garrantzitsua niretzat. Eta, zorionez, bai erabiltzaileek

eta bai familiek egunero-egunero aitortzen dute gure lana.

### **Hain zuzen ere, zentrotik kanpora ere familiei babesa ematen jarraitzen duzue, ezta?**

Eguneko zentroan egunero egin ohi dugunaz apartekoa da gure konpromisoa, eta horren eredutzat jo litezke familientzat prestatzen ditugun prestakuntza-programak. Senitartekoentzat interesgarriak izan litezkeen auziak lantzen ditugu, hala zaintzapean duten adineko pertsona horri etxean bertan laguntzen jarrai dezaten. Aholku eta irizpide ugari ematen dizkiegu: zenbait zirkunstantzietan nola jokatu beharko luketen, zaintzek autonomia pertsonalean eta autoestimuan zer-nolako eragin itzela duten, beren senitartekoaren gaitasun kognitiboak okertzean zer jardunbide legal har ditzaketzen, zer gizarte-baliabide dituzten eskura... Erabiltzaileen eta familien ongizatea areagotzea da gure helburu nagusia. Horregatik, gurera datozen pertsonak ahalik gehien babesteko, gure esperientzia eta ezaguerak eskaintzen dizkiegu familiei.

# Adineko apaizak, etapa berri bat

Azken urteotan, Hurkoak bere ardurapean izan du Gipuzkoako adineko apaizei laguntzeko programa, baina 2015ean etapa berri bati ekin genion, eta aurrerantzean Juan Maria Vianney Fundazioa arduratuko da Donostiako eta Irungo egoitzak zuzentzeaz. Etorkizuna du ardatz programa berri honek, eta Hurkoa ere tartean da, fundazioko patronatuko kide denez gero.

Gipuzkoako Elizbarrutiko adineko apaizei laguntzeko programa honetan Hurkoak egindako lanak zerbitzuak modernizatzeko balio izan du, bai eta han-hemenka dauden zentroetako erabiltzaileei ematen zaien arreta eta zaintza hobetzeko ere. Alde horretatik, “Ntra. Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroan azken urteotan metatutako eskarmentua erabakigarria izan da prozesu luze hau burutzeko; orain, prozesu horren azken txanpan, zentroa adineko pertsonen egoitza izateko homologatu dute.

Hurkoaren azken urteotako lanari esker, zentroa goitik behera aldatu ahal izan dugu, eta horrek etorkizunean zentroari eusteko aukera ematen digu, bertan biziko diren adineko apaizak gutxiago izango diren arren.

## Berregituraketa

Seminarioko apaizen egoitzak 36 plaza ditu, eta okupazioa erabatekoa da. Bertan bizi diren pertsonen eskaintzen zainkaren kalitate-maila hobetzeko, guztiz erabakigarria izan da eskura genituen baliabideak zentroaren errealitatera egokitzeko eta optimizatzeko egin dugun lana; zerbitzuak areagotu izana eta gune nahiz jarduerak berregituratu izana, batik bat.

Horretarako, zaintza medikoekin, erizaintza-, elikadura- eta aisialdi-zerbitzuekin eta instalazioekin lotutako alderdi guztiak hobetu ditugu. Horri guztiari esker, Seminarioko apaizen egoitza homologatu egin digute, eta Gipuzkoan adineko pertsonak zaintzeaz arduratzen diren gizarte-zerbitzuen parte bihurtu da.



# Boluntarioak, Hurkoaren arima

Bere lanekin jarraitu nahian, Hurkoak boluntarioen sarea berregituratzea eta sustatzea hartu du helburu.


Boluntarioek Hurkoan esku-hartze handiagoa izan dezaten nahi dugu, eta beraz, gogor ahaleginduko gara beren prestakuntza eta partaidetza sakonagoak izan daitezen.

170 pertsona inguruk osatzen dute gaur egun Hurkoaren boluntario-sarea. Gure zaintza-lanetarako, boluntarioen konpromiso eta inplikazioa guztiz funtsezkoak dira. Horregatik, boluntariotzaren kudeaketa hobetzea da gaur egungo gure erronka nagusietako bat.

Dagoeneko Hurkoan boluntario aritzen direnekin lan egitea izango da lehen urratsa, haien eta gure arteko harremana hobea izan dadin. Horretan laguntzeko, egitura berri bat sortu dugu, boluntarioen premiei, kezkei, proposamenei, prestakuntzari eta abarri ahalik eta erantzunik egokienak ematea helburu nagusi duena.

Horretaz gain, bada beste alderdi bat, sakon landu beharrekoa: boluntarioen eta gure arteko komunikazioa, alegia; horretarako, beharrezkoa da, batetik, boluntarioak gure elkartean ahalik eta integratuen sentitzea, eta bestetik, boluntario gehiago erakartzea (Donostian, Arrasaten, Irunen, Tolosan, Zarautzen eta Orion, batik bat).

## Boluntario-lanen kudeaketa



### Jon Arias, boluntarioa

#### Zertan aritzen zara Hurkoan?

Gaur egun Villa Betania egoitzara joaten naiz bertan bizi diren pertsonak bisitatzen, eta hantxe egoten gara tarte batez, oso ondo pasatzen dugu. Gainera, Hurkoan boluntario aritu naizen denbora guztian laguntza premian zeuden pertsonekin egin dut lan: medikuntzara laguntzen diet, arropa erostera, enkarguak egitera...

#### Zenbat denbora ematen duzu horretan?

Astean behin joaten naiz, eta ordu eta erdi ematen dut bertan.

#### Zerk bultzatzen du zu bezalako gazte bat adineko pertsonekin lan egitera?

Gizarteari hondar-aletxo bat ematea da asmo nagusia, baina baita bestela ikusiko ez lirakeen errealitateak ezagutzea ere; adineko pertsonena edota zailtasunak dituztenena, adibidez. Hurkoan lanean hasi nintzenetik, beti aurkitu dut motibo bat edo beste laguntzen jarraitzeko. Ahalegin apala izan

arren, norberak bere ahalekin neurrian lan egiteak balio handia du.

#### Zer ekarpen egiten duzue Hurkoako boluntarioek?

Hurkoarentzat lan handia izango da, nik uste. Era-biltzaile asko dituen, edozertan laguntzeko prest dauden pertsonak ondoan izateak asko lagunduko die. Hurkoan ezagutu ditudan gainerako boluntarioak oso solidarioak dira, sentsibilitate eta konpromiso handikoak, eta horrek laguntzen jarraitzeko motibazioa ematen dizu.

#### Animatuko al zenituzke zure inguruko gazteak boluntario izatera?

Bai, jakina. Ez dago zertan urrutira joan. Hemen ere premia eta lan ugari daude. Ziur nago herri bakoitzean gauza asko daudela egiteko, eta besteen alde denbora emateak beti merezi du. Boluntario aritzeak mesede baikik ez du egiten: norberak barruan duen onena ateratzen laguntzen du, eta lana ez da demasekoa.

# 2015.-2018. urteetarako estrategia-plana

Hurkoak estrategia-plan berri bat jarri zuen abian 2015. urtean, eta plan horrek marraztuko ditu 2018. urtera bitarteko gure jardueren ildo nagusiak. Adineko pertsonen, buruko gaixotasunen bat dutenen eta hauzkortasun-egoeran dauden premiei ahalik eta erantzunik egokiena ematen jarraitzea helburu hartuta, hiru urte hauetan egin beharrekoekin lotutako zazpi estrategia-ildo definitu ditugu.

2015. urtearen hasieran, Hurkoak bere estrategia-plan berria onartu zuen, bi erronka nagusi gogoan hartuta: batetik, bere zerbitzuak hobetzen jarraitzea; eta bestetik, gure gizartean adineko pertsonekin lotuta sortzen ari diren premia larriei erantzun egokia ematea.

Testuinguru horretan, Hurkoak jardunbide-ildo argi bat definitu du, orain arteko bere jardueretan ezagueraren kudeaketa, berrikuntza eta garapena sustatzeko, eta bere lorpenak gizarte osoarekin konpartitzeko. Hurkoa betidanik kezkatu izan du sentsibilizazio sozialak, eta auzi horri heldu nahi dio etapa berri honetan.

Datozen urteotan, gizarteak egoera eta premia larri askori egin beharko die aurre: gizon-emakumeon bizi-itzaropena nabarmen igoko da, gizartea zahartu egingo da, eta horrek orain arteko gizarte-ereduak itzulipurdikatuko ditu. Hurkoak, bere zerbitzuak hobetzen jarraitzeaz batera, erronka handi horiei erantzuteko konpromisoa hartu nahi du.

## Hurkoa 2015.-2018. urteetarako estrategia-ildoak

- |   |   |
|---|---|
| 1 | Adineko pertsonak eta buruko gaixotasunen bat dutenak babesteko neurriak hobetzea   |
| 2 | Mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsoneri eta beren familiei zerbitzuak berritzeko eta hobetzeko neurrietan aurrera egitea |
| 3 | Gure boluntario-sarea definitzea eta sustatzea  |
| 4 | Langile eta boluntarioen prestakuntza eta partaidetza sustatzea   |
| 5 | Antolaketa-egitura eraginkorra izan dadin ahalegintzea, eta etengabeko hobekuntza-parametroak nagusi izatea                     |
| 6 | Gizartean eta hedabideetan presentzia publiko handiagoa izatea  |
| 7 | Ezagutzaren kudeaketa sustatzea   |




# Kopuruak: informazio ekonomikoa

Ekitaldi bakoitzean oreka ekonomikoa lortzea da Hurkoako arduradunon erronka nagusietako bat. Gizarteari eskaintzen diogun lana gero eta handiagoa da, eta horrek premia berriei aurre egitea eragiten du.


Hurkoa irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta antolaketa- eta eraginkortasun-arrazoiak direla tarteko, bi fundaziotan banatzen da: Hurkoa eta Hurkoa Zainduz. Biek dituzte estrategia, konpromiso, ikuskera eta balio berberak, baina bakoitzari ekintza-eremu espezifiko bat dagokio. Tutoretza- eta hauzkortasun-egoerez arduratzen da Hurkoa, eta mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen zaintza-lanez eta “Ntra. Sra. de las Mercedes” Eguneko Zentroaren kudeaketaz, berriz, Hurkoa Zainduz.

Hurkoak bi diru-iturri nagusi ditu: batetik, administrazio publikoekin dituen hitzarmenetatik datozkionak, eta bestetik, erakunde eta enpresa pribatuek ematen dizkioten dohaintzetatik datozkionak. Horregatik, nahitaezkoa da gardentasuna eta lan garbia erabatekoak izatea. Gure laguntzaileen babes ezinbesteko zaio Hurkoari, aurrerantzean ere bere gizarte-funtzioa betetzen jarraituko badu.

## Diru-sarreraren jatorria - Hurkoa



## Diru-sarreraren jatorria - Hurkoa Zainduz



# Gizartea, ispiluaren aurrean

Hurkoak 25 urte bete zituen 2015ean, eta urteurren horrek aukera aparta eman digu gizartearekiko gure konpromisoa berritzeko. Gure helburua argia da, oso: “hauzkortasun-egoeran dauden pertsonen premiei erantzuteko bide berriak urratzen jarraitzeko geure gain hartu dugun erantzukizunari eustea”.



Joan den azaroaren amaieran, Hurkoak ekitaldi bat antolatu zuen gurekin hasieratik lanean aritu diren pertsoneri eta erakundeei eskerrak emateko. Era berean, etorkizunera begira hartua dugun konpromiso irmoa azpimarratzeko ere balio izan zuen ekitaldi hark, horixe baita gure asmo nagusia: mendekotasun-, hauzkortasun- nahiz babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen gizarte-premiei aurre egiten jarraitzea.

Asko izan ziren, ehunen bat, gure urteurrenean ondoan izan genituen lagunak, eta erakundeek ere ordezkari ugari bidali zituzten; tartean ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Ernesto Gasco Donostiako alkateordea, José Ignacio Munilla Donostiako gotzaina, Lide Amilibia Gizarte Politiketako sailburuordea eta Aitziber San Roman Donostiako Gizarte Ekintzako zinegotzia.

Hurkoak aspaldi jo du hauzkortasuna etorkizuneko gizarteko erronka nagusizat, eta hori agerian uzteko ere balio izan zuen joan den azaroko ekitaldiak. Auzi handi horri buruzko hitzaldi bana eman zuten Marta Álvarez de Arcaya geriatra eta Matia Fundazioko zuzendariak eta Pablo García Zorroaga Fundazioko kalitate-zuzendariak, eta gaiari bi arlotatik heldu zioten: osasunarenetik eta gizartearenetik. Bi aditu horien hitzaldien ostean, hauzkortasunari buruz egiten ari den ikerketa-laneko ondorioetako batzuen berri eman zien Hurkoak ekitaldira etorri zirenei.

# 2015eko Memoria



## Hurkoa, labur-labur

Hurkoaren 25. urteurrenak aukera itzela eman digu aldi berean iraganari eta etorkizunari begiratzeko. Hori dela eta, oroitzapenezko bideo bat egin genuen; bertan, gurekin harremana izan duten pertsonen lekukotza eta iritziak jasotzeaz batera, Hurkoak Gipuzkoako gizarteari egin dizkion ekarpen ugarien berri ematen da.

Ikus-entzunezko dokumentu horretan, egunero-egunero Hurkoan lanean diharduten pertsonak dira protagonista nagusiak. Patronatuko kideek, langileek, boluntarioek eta Hurkoak eskaini ohi dituen zerbitzuen erabiltzaileek beren bizipenen berri ematen dute, gure elkartearen balioak eta gizartearekiko gure konpromisoa nabarmentzeaz batera.

## Urrezko H-a



25. urteurren honen karietara antolatutako ekimenen artean, bada bat, garrantzi handikoa, hemen aipatu nahiko genukeena. Gure eguneroko lanerako balio handikoak izan diren pertsonen eta elkartearen konpromisoa eskertze aldera, Hurkoak pertsona horiei sari bat ematea erabaki du: Urrezko H-a, alegia. Oraingo honetan, azken urteotako beren lan erabakigarria eskertzeko, bi pertsona saritu nahi izan ditu Hurkoak; eta horixe izan zen, ezbairik gabe, joan den azaroko ekitaldiko une hunkigarriena: José Luis de la Cuesta Aurora Elósegui eta Evelia Canterari saria eman zienekoa, hain zuzen. Elósegui epaile-magistratua da, eta Cantera, berriz, Hurkoaren historian funtsezkoa izan den pertsona, gaur egun, erretiroa hartu ondoren, solidaritatearen alde konprometituta jarraitzen duena.

## Oihartzun zabala hedabideetan

Hurkoak, bere 25. urteurrena aprobetxatuz, dibulgazio- eta sentsibilizazio-lan handia egin du. Tutoretzaren, mendekotasunaren eta hauzkortasunaren alorretan egindako gure lanak gizartearen eta hedabide ugariaren arreta piztu du, eta asko izan dira urtean zehar gure lana hizpide hartu duten hedabideak.



## “Konponbide irudimentsuak eman behar zaizkie zailtasunak dituzten pertsoneri”

### Aurora Elósegui,

Donostiako Lehen Instantziako  
Epaitegiko epaile-magistratua

30 urte epaile-lanetan eman ondoren –eta ia erdiak tutoretza-kontuetan eta zailtasun edo desgaitasun bereziak dituzten pertsonen aldeko babes-lanetan espezializatutako epaitegi batean–, Elósegui auzi-mota hauetan esperientzia gehien duten adituetako bat dugu. Beste gizarte- eta osasun-eragile batzuekin elkarlanean, Elóseguik ehunka kasu ebazten lagundu du .



### Justiziarena, itxura batean, oso eremu inpersonala da, baina, hala ere, pertsona bat desgaitu eta haren tutoretza erakunde edo elkarte bati emateko orduan, badirudi beharrezko duela pertsonalizazioa. Hala al da?

Bai, hala da, eta halabeharrez, gainera. Hala egingo ez bagenu, seinale gauzak gaizki egiten ari garela. Ezinezkoa da alor horretako funtzioak modu inpersonalean betetzea. Kasu bakoitza bakarra da, eta unean-unean ezarri beharreko neurriak, berriz, erabat indibidualizatuak. Horretarako, baina, epaitegi espezializatu gehiago behar dira; daudenak ez dira aski, eta horrek aldatu egin behar du.

### Bilakaera demografikoarekin eta gizartea gero eta zaharragoa izatearekin lotutako premia berriek beharrezko egingo al dute aldaketa hori?

Bistan da, eta gainera, nazioarteko legeriak berak ere horretara behartzen gaitu. Gaur egun, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko New Yorkeko Konbentzioak argi diosku zailtasunak dituzten pertsoneri lagundu egin behar zaiela, baldin eta, betiere, halako pertsonak aldi baterako edo behin betiko behar dituzten zaintzalan horiek espezializatuak, indibidualizatuak eta proportzionalak baldin badira, hala ez izateak pertsona horien eskubideak urratuko bailuke, eta horixe da babestu behar dena. Pertsona bakoitzarentzako plan espezifiko eta indibidualizatu bat behar da. Betebehar horri heldu behar diogu lehenbailehen.

### Zein izan ohi dira pertsona bat desgaitzeko arrazoi nagusiak?

Gaur egun, arrazoi nagusia adina da. Normalean

gurera iristen diren kasuak adineko pertsonekin daude lotuta; adinagatik edo adinak dakartzan gaixotasunengatik beren burua gobernatzeko gai ez diren pertsonekin, zehatz esatera. Bada beste tipologia bat ere, ni beti hunkitu izan nauena: buruko gaixotasunen bat duten pertsonena, beren bizitzan zehar mota askotako babes eta zaintza-lanak behar izaten dituztenak. Eta badira, azkenik, nik puntualtzat hartuko nituzkeen zenbait zirkunstantzia ere; horrelakoetan, guregana iristen diren pertsonak babesik gabe uzten dituzte familiakoek, edo gaixotu egiten dira, baina denborarekin egoera aldatu egiten da.

### Zenbat denbora irauten dute desgaitasun-prozesuek?

Dena ondo badoa eta, izapideak egiten ari garela, aparteko arazorik sortzen ez bada, prozesuak sei edo zortzi hilabete irauten du. Baina nik gero eta argiago dut beharrezkoa dela behin-behineko neurriak hartzea, desgaitasun-prozesua erabat amaituta ez badago ere, eta, beraz, kasu asko eta asko bi hilabeteko epean tramitatu litezkeela. Eta kasu askotan, gainera, horixe izan liteke biderik egokiena; horrelakoetan, izan ere, aski izan liteke pertsona horri izapide jakin bat ebazten lagunduko dion ordezkari bat izendatzea, arazoak konpontzen lagunduko dion norbait, bere bizitzako gainerako alderdietan esku hartzeko beharrik gabe.

### Esku-hartze partzial hori “justuagoa” izan al liteke kasu askotan?

Gero eta normalagoa da horrela jokatzeko. Epaitegi espezializatuetan lanean ari garenok horren aldekoak gara, baina onartu beharra dago horrek

lan itzela dakarrela. Pertsona bat gai ez dela esatea da errazena: horren alde ebatzi, eta kito. Horren aurrean, esku-hartze puntualek pertsona bakoitzaren premietara egokitutako konponbideak eman beharra dakarte, eta hori ez da batere erraza.

### **Badakizu zuen epaitegiak funtzio sozial itzela betetzen duela, ezta?**

Badakit, bai. Hala ere, hori gure lana epaitzen dutenek esan beharko lukete. Nire ustez, guk egiten dugun lana garrantzi handikoa da, oinarri-oinarrizkoa. Izan ere, zailtasunak dituzten pertsonen eskubideak bermatzen ditugu guk: maite dituzten baina zaintza-lana beren gain har ez dezaketenen aurrean, edo, beren maitasuna gorabehera, gauzak gaizki egiten dituztenen aurrean, pertsonak diren aldetik dagozkien eskubideak babestu behar ditugu epaileok.

### **Sentiberatasun berezia behar al da zuena bezalako epaitegi batean lan egiteko?**

Nik baietz uste dut: sentiberatasun berezia behar da, eta zure lana asko gustatu behar zaizu, hemen boluntarismo handia baitago. Kontua ez da legea betearaztea soilik: arazoak konpondu behar dira, arazoei konponbide irudimentsuak eman behar zaizkie, legea interpretatu behar da (legea bera errespetatuz, baina baita ausart jokatzu ere), eta guztiz argi dauden printzipio batzuk bete behar dira zailtasunak dituzten pertsonen alde. Eta hori ez zaigu askorik gustatzen. Bide ziurretik jo nahi izaten dugu, ezarrita dagoena errespetatzearen aldekoegiak gara, baina ausart jokatu behar da, legearen barruan egoteak dakarren “bertan goxo” horretatik ihes egingo badugu.

### **Legea ari al da desgaitasunaren alorrean sortutako premietara egokitzen?**

Alor horretan, legeek oso mantso egiten dute aurrera. Nik askotan zalantza izan dut dena estu-estu araututa egotea ona ote den, ezinezkoa baita lege batek giza aniztasun oparo eta aberats guztiaren berri ematea. Ezinezkoa da, orobat, lege batek pertsona baten zailtasun guztiak konpontzea. Eta alde horretatik, xehetasunez beteriko lege bat traba handia gerta liteke kasu konkretuei konponbide

egokiak bilatzeko. Hala ere, badira zenbait irizpide orokor legerian jaso beharko liratekeenak, horrek asko lagunduko bailiguke; baina, dena den, kontu horietan ez gara ados jartzen: zenbaitetan, osasun mentalaren alorrean lan egiten dutenen artean, psikiatrak ez datoz bat; tutoretza-jarduerari dagokienez, gizarte-erakundeak ere ez dira ados jartzen. Alor honetan ari garenok ez gatoz bat, eta legeria, normalean, gizartearen atzetik ibili ohi da.

### **Nola baloratzen duzu Hurkoaren eta antzeko elkarten lana?**

Guretzat, halako elkarten lana oinarri-oinarrizkoa da. Guk ez daukagu premian dauden pertsonen zer-nolako babesa behar duten erabateko zehaztasunez jakiterik. Eta horretan, tutoretza-lanak egiten dituzten elkarteak oinarri-oinarrizkoak dira, halakoek langile kualifikatuak baitituzte, eta gainera, oso harreman estua izan ohi dute auzi hauek ebatziaz

arduratzen diren epaitegiekin. Haien lanik gabe, beraz, guk ez genuke gauza handirik egingo. Familiak dira legez kontu hauetaz arduratu beharko luketenak, baina esperientziak frogatzen du askotan familiarik ez dagoela, edo gatazka-iturri direla, eta horrelakoetan, auzia familiaren eremetutik atera behar da. Beste kasu askotan ez da horrela gertatzen, eta familiek gauza asko egin ditzakete, baina hala ez denean, tutoretza ezinbestekoa da.

### **Zer ekarri dio Aurora Elóseguri Hurkoak emandako Urrezko H-ak?**

Esan nezake pertsona gisa Hurkoarekin hazitakoa naizela. Buruko gaixotasunak zituzten pertsonen tutoretzaz kezkatzen hasi nintzenean –eta garai hartan inortxo ere ez zen haietaz arduratzen–, orduantxe ekin zion Hurkoak bere bideari. Harrezkero, elkarrengandik oso hurbil ibili gara, gure harremanek ez dute etenik izan, eta buru-belarri jardun izan dugu zailtasunak dituzten pertsonen alde lanean. Alde horretatik, saria jasotzeak poz handia eman dit, horrelako gauzak batere gustatzen ez zaizkidan arren. Ibilbide profesional guzti-guztia egin dut Hurkoaren konpainian, eta hortxe izan da, tartean, Evelia Cantera ere, Hurkoaren lehen arduraduna izan zena, eta saria nirekin batera jaso zuena. Bide bera urratu dugu elkarrekin.



ՀԻՄՆՈՒՄ  
ՆԵՐՁԵՐԵՐ  
ԵՐԻՐԻՄՆԵՐ

ՀԻՄՆՈՒՄ

2017-ko Memoria